



Your
Cybersecurity
Company



gipuzkoa
kutxa solidarioa
kutxa FUNDAZIOA

Datuak Babesteko Europako Erregelamendua

2018ko uztaila




WELCOME



The information provided in this document is the property of S21sec, and any modification or use of all or part of the content of this document without the express written consent of S21sec is strictly prohibited. Failure to reply to a request for consent shall in no case be understood as tacit authorisation for the use thereof.

© Grupo S21sec Gestión, S.A.




- Sarrera eta oinarrizko kontzeptuak
- DBEOren berrikuntza nagusiak.
- Nahitaez betebeharreko legeria aplikagarria: zehapenak.
- Interesduna informatu eta bere adostasuna lortu beharra
- Segurtasun-neurri aplikagarriak
- Datu pertsonalak dituzten euskarrien kudeaketa
- Interesdunen eskubideak
- Ondorioak

SARRERA ETA OINARRIZKO KONTZEPTUAK

ZER DA DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA (DBEO)?


- DBEO Europako Erregelamendu Berria (UE 2016/679): 2016/04/27an onartua
- Atariko 173 Kontuan hartuzko, 11 Kapitulu eta 99 Artikulu ditu.
- 2018/05/25ean sartu zen indarrean.



DATU MOTA



DBLO (LOPD)



DBEO (RGPD)

- **Datu Pertsonalei buruzko araudi bakarra Europako Batasun (EB) osoan.**
- **Pertsona fisikoen eta operadoreen segurtasun juridikoa sendotzea.**
- **Pertsona fisikoen eskubideen babesa areagotzea.**
- **Interesdunak bere datu pertsonalen kontrol handiagoa izatea.**
- **Datuen zirkulazio askea bermatzea EBren barruan.**

- **Datu Pertsonala:** Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazio guztia, bere identitatea zehaztu baldin badaiteke. Izena, telefonoa, helbidea, argazkia, etab.
- **Tratamendua:** Datu baten edo datu-multzo baten gainean egindako edozein eragiketa, prozedura automatizatuen edo automatizatu gabeen bidez.
- **Helburua:** Datuak biltzeko eta tratatzeko dagoen xedea. Xedeak argia eta zehatza izan behar du, eta herritarrei jakinarazi behar zaie datuak biltzerakoan.



- **Tratamenduaren arduraduna:** Datuek izango duten xedea eta tratamendua erabakitzen duen pertsona juridikoa, eta tratatzen diren bitartean datu horiek zaindu eta babesteaz arduratzen dena.
- **Tratamenduaren eragilea:** Arduradunaren kontura, eta kontratupean hitzarturiko denboraldian, datuen tratamendua egingo duen pertsona juridikoa.
- **Kontrol-agintaritza:** Agintaritza publikoa, independentea, Estatuak ezarria, DBEO zuzen ezartzen dela kontrolatzeko.



Erantzukizun Proaktiboaren printzipioa:

DBEOk honela deskribatzen du printzipio hau: tratamenduaren arduradunak **neurri tekniko eta antolamenduzko egokiak** aplikatzeko duen **premia**, tratamendua Erregelamenduaren arabera dela bermatu eta erakusteko.

Termino praktikoetan, printzipio honek eskatzen du erakundeek honako hauek aztertzea: **zer datu tratatzen dituzten, zer xede edo helbururekin egiten duten eta zer-nolako tratamendu-eragiketak burutzen dituzten.**

Printzipio honek **jarrera kontzientea, arduratsua eta proaktiboa** eskatzen du erakundeen aldetik.

DBEO-REN BERRIKUNTZA NAGUSIAK

Erregelamendua bete behar duten enpresei dagokienez, **aplikazio-eremua zabaltu egin da Europako Batasunean ezarri gabeko enpresetara ere**, baldin eta **Europako Batasuneko herritarrentzako** ondasun edo zerbitzuen eskaintza baten ondorio diren **tratamenduak egiten badituzte**, edota beraien jokabidearen monitorizazio eta jarraipenaren ondoriozkoak.



Adostasuna lortu beharra zorroztu da, adierazpen edo ekintza positibo baten bidez, eta hori **ezin da isiltasunetik edo ekintzarik ezetik deduzitu, eta adostasuna erregistratzeko sistemak nahitaez eduki beharra** ezartzen du. Gainera, adostasunaren beharra sartu da informazioaren gizarteko (internet) zerbitzuak zuzenean neska-mutilei eskaintzeko, 14 urtetik gorakoak baldin badira, eta 14 urtetik beherakoentzat gurasoen edo tutorearen adostasuna beharko da.



Gardentasun-eskubidea indartu da, informazio gehiago ematera behartuz datuak bildu aurretik, baita **ahaztua izateko eskubidea** ere, zenbait zirkunstantzian datu pertsonalak ezabatzea eskatu ahal izateko.



Datu bereziki babestutzat jotzen diren horiez (ideologia, erlijio, afiliazio sindikal, sineste, osasun, arraza-jatorri eta sexu-bizitzaz) gain, **datu genetikoak eta biometrikoak** gehitu zaizkie, zalantzarik gabe pertsona bat identifikatzeko direnak.



Diseinutik ezartzen da **datuak babestu beharra**: neurri egokiak aplikatu behar dira tratamendu-bideak zehazterakoan eta tratamenduaren unean bertan, eta babes lehenetsia pertsonaren esku-hartzerik gabe datu pertsonalak atzigarriak izan ez daitezen pertsona fisikoen kopuru mugagabe batentzat.



Hirugarrenen mandatuzko **tratamenduen erregistroa** mantendu behar da **250 langile baino gehiagoko enpresetan**, eskubide eta askatasunetarako arriskua suposatzen duten datu-tratamenduetan, bereziki **babesturiko datuen** tratamenduan edo **kondena eta arau-hauste penalei buruzko datuen** tratamenduetan.



Gertatzen diren **segurtasun-etenak** eta pertsona fisikoentzat kalte fisiko, material edo immaterialen arriskuak suposatzen dituztenak **Datuak Babesteko Espainiako Agentziari eta interesdunari nahitaez jakinarazi beharra** sartu da.



Datuen babesean **inpaktu-ebaluazioak (DBIE) nahitaez egin beharra** ezarri da, betiere litekeena denean tratamendu-eragiketak, batez ere teknologia berriak erabiltzen dituztenak, arrisku handikoak izatea pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako. **Datuak Babesteko Espainiako Agentziak zerrendatuko ditu zer-nolako tratamendu-eragiketek behar dituzten inpaktu-ebaluazioak.**



Datuak Babesteko Ordezkarari (DBO) bat izendatu behar da tratamenduak agintari eta erakunde publikoek (epaitegiak izan ezik) egiten dituztenean, betiere jarduera nagusiek interesdunen ohiko behaketa eta sistematikoa eskatzen dutenean eskala handian edo datu bereziki babestuen edo kondena eta arau-hauste penalei buruzko datuen eskala handiko tratamenduak direnean.



Leihatila bakarraren sistema ezarri da Europako Batasuneko kide diren hainbat estatutan ezarritako arduradunek, edo kide den Estatu bakar batean egon arren Europako Batasuneko hainbat estatutako herritarrei era esanguratsuan eragiten dieten tratamenduak egiten dituztenek, **datuak babesteko Agintaritza bakarra izan dezaten solaskide gisa.**

Datuak Babesteko Europako Batzordea sortu da, eta 95/46/CE Zuzentarauaren 29. artikuluko Lantaldea ordeztuko du.



**NAHITAEZ BETEBEHARREKO LEGERIA APLIKAGARRIA.
ZEHAPENAK**



Your
Cybersecurity
Company

Zehatzeko ahalmenak ezartzen dira ohartarazpen bidez, eskubideez baliatzeari arreta jartzea eskatuz, tratamendua mugatuz eta administrazio-isunak jarritz; isunen **zenbatekoak** asko gehitu dira **20.000.000** euroraino irits daitezkeelarik edo **aurreko finantza-ekitaldiko urteko negozio-kopuru osoaren % 4raino gehienez**, kopuru handiena hartuko delarik. Kide diren Estatuek Erregelamenduan administrazio-isunekin zehatuta ez dauden arau-hausteetan aplikatzea erabakitzen dituzten beste zehapen eraginkor batzuk, proportziozkoak eta disuasiozkoak, Batzordeari jakinarazi behar dizkiote 2018ko maiatzaren 25erako.



Zehapenak honako hauen arabera sailkatuko dira:

- Izaera, larritasuna eta iraupena (ukituriko kopuruak, kalteen maila, kalteak eta abar).
- Kalteak arintzeko hartutako neurriak.
- Nahitasuna edo zabarkeria.
- Erantzukizun-maila, kontuan izanda hartutako neurri teknikoak eta antolamenduzkoak.
- Aurreko arau-haustekak.
- Ukituriko datuen kategoria.
- Jokabide-kodeekiko atxikimendua.
- Etab. ...



Espainiako lege-proiektuak 3 mailatan proposatzen du arau-hausteen sailkapena:

- **OSO LARRIAK**
3 urtera preskribatzen dute
- **LARRIAK**
2 urtera preskribatzen dute
- **ARINAK**
Urtebetera preskribatzen dute



- Funtsezko printzipioak eta bermeak urratzea
- Tratamenduaren zilegitasun-printzipioa ez betetzea
- Ez dago adostasunik edo hau ez da baliozkoa (adostasun informatua, esplizitua)
- Datuak biltzerakoan adierazi ez bezalako xedeetarako erabiltzea
- Kategoría berezietako datuen tratamendua, adostasunik edo beharrik gabe
- Kondena edo arau-hausteen tratamendua, oinarririk edo/eta baimen juridikorik gabe
- Arau-hausteen eta administrazio-zehapenen tratamendua, horretarako organo eskuduna izan gabe edo babestuko duen legeren bat izan gabe

ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK



gipuzkoa
kutxa solidarioa
kutxa FUNDAZIOA

- Informatzeko betebeharra ez betetzea
- Konfidentzialtasun-betebeharra urratzea
- Eskubideez baliatzea errazteko ordainketa eskatzea
- Bere epean ez erantzutea eskubideez baliatzeko eskaerari
- Datuak blokeatzeko betebeharra ez betetzea
- Datuak babesteko agintaritzari eragozteak eskaturiko informazioa eskura dezan



- Adin txikikoen datuen tratamendua horien tutorearen adostasunik gabe
- Adin txikikoen adostasunaren balioa egiaztatzeke ahalegin zentzuzkorik ez akreditatzea
- Eskubideez baliatzeko eskaerak eragozte, oztopatzea edo behin eta berriro kontuan ez hartzea
- Neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokirik ez aplikatzea xede bakoitzerako beharrezko datuak bakarrik tratatzen direla bermatzeko
- Neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokirik ez aplikatzea tratamenduaren arriskurako egokiak diren segurtasun-mailak bermatzeko

- Ezarritako segurtasun-neurriak urratzea edo ez betetzea
- Ukituriko pertsonen edo datuak babesteko agintaritzaren eskaerak kontuan ez hartzea
- Doakion pertsonari ez ematea bere datuen segurtasun-urraketen berri
- Datuak babesteko agintaritzari ez ematea datuen segurtasun-urraketen berri

besteak beste...




- Eskaturiko informazio guztia ez emateagatik, gardentasun-printzipioa edo informazio-eskubidea ez betetzea
- Interesdunari ordainketa eskatzea informatzeko betebeharra errazteko edo interesdunaren edozein eskubide kontuan hartzeko
- Eskubideen erabilera-eskaeran ez kontuan hartzea, tratamenduaren eragilea denean izan ezik
- Ez ematea datuen zuzenketa edo ezabaketaren edo tratamenduaren mugaketaren berri
- Doakionari ez ematea, eskatu duenean, datu-tratamenduaren zuzenketaren, ezabaketaren edo mugaketen berri horien hartzaileengan

INFRACCIONES LEVES

- Hildako pertsona baten datuak ez ezabatzea
- Tratamenduaren arduradunekin batera ez formalizatzea betebeharrak, eginkizunak eta erantzunbeharrak
- Tratamendu-erregistro osatugabea izatea
- Segurtasun-urraduren jakinarazpen osatugabea egitea datuak babesteko agintaritzari
- Datuak babesteko agintaritzari zehatza ez den informazioa ematea kontsulta bat egiten duenean

besteak beste...



INTERESDUNA INFORMATZEKO ETA ADOSTASUNA LORTZEKO BETEBEHARRA

Eman beharko den informazioa datuak interesdunarengandik lortzen direnean

- 1 Arduradunaren nortasuna eta harremanetarako datuak.
- 2 Datuak Babesteko Ordezkararen harremanetarako datuak.
- 3 Tratamenduaren xedeak.
- 4 Tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa.
- 5 Arduradunaren interes bidezkoak (6.1.f artikulua).
- 6 Hartzaileak edo hartzaile diren pertsonen kategoriak.
- 7 Datuen nazioarteko transferentzia dagoenean, herrialdearen egokitasunerabakia egotea edo erabilitako berme egokien xehetasuna.



Eman beharko den informazioa datuak interesdunarengandik lortzen direnean



8 Datuak gordetzeko epea.

9 Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak.

10 Datuak Babesteko Agentziaren aurrean erreklamatzeko eskubidea.

11 (Legezko edo kontratuzko) adostasunik gabe datuak komunikatzeko oinarri juridikoa.

12 Datuak emateko betebeharra eta ez ematearen ondorioak.

Eman beharko den informazioa datuak interesdunarengandik lortzen direnean

13 Erabaki automatizatuak baldin badaude, aplikaturiko logika eta ondorioak interesdunarentzat.

14 Datuen geroko tratamenduei buruzko argibideak (geroko tratamenduaren aurretiko unea).



ADOSTASUNA LORTZEKO BETEBEHARRA

Adostasunerako baldintzak:

- Arduradunak gai izan behar du **adostasuna** erakusteko, beste gai batzuetatik **bereizita**.
- Eskaerak **ulergarria, eskuraerraza, hizkera simple eta argikoa** izan behar du
- Tratamendua adostasun hutsean oinarritzen bada, **hau erraz erretiratu ahal izango da noiznahi**.
- Kontratuen barruan, adostasuna erretiratu ahal izango da kontratuan sartu gabeko tratamenduetarako.



ADOSTASUNA LORTZEKO BETEBEHARRA

Adin txikikoen adostasuna Informazioaren Gizarteko zerbitzuetan

- Tratamendua adin txikikoaren adostasunean oinarrituta dagoenean, arduradunak **neurriak** jarri behar ditu **adina egiaztatzeko**.
- Gutxieneko adina, aplikagarria den legearen arabera, **13 eta 16 urte artekoa** da; bestela, adostasuna tutoreak edo ordezkariak emango du.



Agentziaren gomendioak adostasunari buruz:

- **Ez jarraitzea adostasunak lortzen omisio bidez.**
- **Egokitzapena honela egin daiteke:**
 - **Interesdunen adostasuna lortuz, DBEOren xedapenen arabera.**
 - **Baloratuz ea dagozkion tratamenduak beste lege-oinarri batean oinarritu daitezkeen, adibidez, datuen arduradunaren edo lagapen-hartzailearen interes legitimoan, interesdunaren eskubideen gainetik egon daitekeena.**

SEGURTASUN-NEURRI APLIKAGARRIAK

Neurri teknikoak

- DBEOk ez ditu neurri aplikagarriak zerrendatzen, DBLOk (LOPD) egiten zuen bezala.
- Enpresen gain uzten da aplikatu beharreko segurtasun-neurriak zehazteko erantzukizuna.
- Tratamenduetako bakoitzari arrisku-analisia egin ondoren lorturiko emaitzaren arabera zehaztuko dira segurtasun-neurriak.
- Tratamendu guztientzako neurri estandar aplikagarriak zehaztu daitezke, berdin diolarik zer-nolako datuak dituzten edo horien xedea, adibidez, atzitze-kontrola, segurtasun-kopiak, atzitze-erregistroa (log-ak), segurtasun-gorabeheren kudeaketa eta abar.

Antolamendu-neurriak

- Antolamendu- edo logistika-neurriek bereziki babestutako datuen kudeaketaren eguneroko ekintzei buruzkoak dira.
- Arduradunak izendatu eta zereginak esleitzea tratamenduetan nahasturiko pertsonen, eginkizun espezifiko eta kontrolatuekin.
- Kudeaketari eutsi eta ezarritako neurri teknikoak kontrolatzea, eta tratamenduen alderdi juridikoak eta legezkoak baloratzea.
- Segurtasun-politikak sortu eta langile guztiei jakinaraztea, datu pertsonalen kudeaketaren ezagutza orokortua egon dadin.

DATU PERTSONALAK DITUZTEN EUSKARRIEN KUDEAKETA

Euskarri bat fisiko edo logikoa izan daiteke, digitala edo analogikoa; hona hemen adibide batzuk:

- Euskarri Fisikoa: Informazioa eduki dezakeen edozein baliabide.
 - Automatizatua, formatu digitalean: izan daitezke ordenagailuak, zerbitzariak, disko gogor ateragarriak, pendriveak, telefono mugikorak, CDak, DVDak, disketeak (oraindik norbaitek erabiltzen baditu), segurtasun-kopien zinta magnetikoak, etab.
 - Automatizatu gabea, paper formatuan: izan daitezke liburuak, koadernoak, libretak, karpetak, post-it-ak, bisita-txartelak, etab.
- Euskarri logikoa: batez ere hodeian biltegituriko datuak dira, euskarri fisikoen bidez atzitu daitezkeenak, baina ez daudenak hauetan biltegituta.

Inbentarioa eta Erregistroa

- Euskarriek inbentariaturik egon behar dute eta digitalak, ahal izanez gero, zifratuta, biltegiatutako datuen segurtasuna bermatzeko.
- Ez da komeni enpresarenak ez diren euskarriak erabiltzea, birusak eduki ditzaketelako edo behar baino informazio gehiago.
- Pertsona bati euskarri bat esleitzen zaionean, erregistroren batean jasota egon behar du, eta zer-nolako datuak izango dituen eta horien sentikortasuna jakin.
- Euskarriei aplikatzeko segurtasun-neurriak "posible den eszenatokirik txarrean jartzeko" pentsaerarekin zehaztu behar dira.

Inbentarioa eta Erregistroa

Automatizatu gabeko euskarriek ere inbentariaturik egon behar dute eta, horiek babesteko neurri teknologikorik bermatu ezin denez, bertako datuak tratamenduaren helburu edo xederako erabilgarri izateari uztean, ezabatu egin behar dira fisikoki suntsituz (paper-birringailuan, adibidez).



Lekualdatzea

Euskarrien lekualdatzea kanpoko eragileek horien edukia ez ezagutzeko moduan egin behar da, erakundeko instalazioetatik euskarri horien sarrera eta irteera erregistratuz betiere.

Adibide gisa:

- Datu sentikorrak dituzten pendrive-ak, babes berezia behar dutenak, kodetu edo zifratu egin behar dira, bermatzeko horien edukia ezingo dutela atzitu edo eskuratu ezagutu behar ez dutenek.
- Tailerretarako izena emateko orriak zorro edo gutun-azal opakoen barruan garraiatu behar dira, beti itxita eta ondo zainduta.



Interesdunen eskubideak

DBLO (LOPD) herritarrek beren datuei buruz balia zitzaketen eskubide gisa aurkezten zituen AZETA (ARCO) eskubideak.

Atzitzea	Edozein arduradunek zer-nolako datuak dauzkan eta tratatzen dituen jakitea.
Zuzentzea	Zuzenak ez diren edo eguneraturik ez dauden datuak zuzentzea.
Ezereztea	Pertsonaren datuak (logikoki) ezabatzea, etorkizunean ezin tratatzeko moduan.
Aurka egitea	Pertsonak aurka egin diezaieke zenbait tratamenduri, proportziorik gabeak edo bere osotasunaren aurkakoak direla uste badu.

DBEOk, gainera, eskubide gehigarriak sartu ditu, azken urteotan sorturiko premiak estaltzen dituztenak

Ezabatzea	“Ahaztua izateko eskubide” gisa ere ezagutzen da, hau da, iturri publiko birtualetako (internet) datuetarako estekak kentzea, emaitza gisa ez agertzeko bere osotasunaren aurka joan daitezkeen zenbait bilaketatan.
Tratamendua mugatzea	Tratamendu zehatz batzuen aurka jartzea, arduradun berak egin ditzakeen beste tratamendu batzuk egokitzen jo ditzakeen arren.
Eramangarritasuna	Arduradun batengandik datuak lortzea beste bati transmititzeko eragozpenik gabe. Datuak lehenengo tratatzen ari den arduradunak erabilera arrunteko, egituratutako eta irakurketa mekanikoko formatuan eman behar ditu, hartzaileak atzitu edo eskuratu ahal izan ditzan.

DBEOk osatu egiten du Aurka egiteko eskubidea, DBLOn (LOPD) ezarria

Aurka egitea eta
banako eskubide
automatizatuei
loturiko eskubideak

Gainera, hemen sartzen da datuak azterketa sakonerako
eta profil pertsonal automatizatuak egiteko erabiltzearen
aurka jartzeko aukera, baldin eta hauek berekin badakarte
herritarrari juridikoki edo pertsonalki eragin diezaioketen
ekintzak.



Interesdunak **eskubidea** izango du tratamenduaren **arduradunarengandik** ondorengo informazioa **lortzeko**:

- 1 Tratamenduaren xedeak.
- 2 Datu pertsonalen kategoriak.
- 3 Hartzaileak edo hartzaile-kategoriak.
(hirugarren herrialdeak barne).
- 4 Datuak kontserbatzeko ezarritako epea
edo epe hori erabakitzeko erabilitako irizpideak.



ALDERDI NABARMENDUAK: INTERESDUNAREN ESKUBIDEAK

Tratamenduaren arduradunak **tratamenduaren edozein zuzenketa, ezabatze edo mugaketaren berri emango dio** aurrez datuak jakinarazi zaizkion **hartzaile bakoitzari**, salbu ezinezkoa denean edo horrek ahalegin neurrigabea eskatzen duenean.

Arduradunak hartzaile horien **berri emango dio interesdunari**, honek horrela eskatzen badio.



Interesdunak **eskubidea** izango du datuen tratamenduaren aurka jartzeko egoera partikular bati buruzko zio edo arrazoiengatik, interes edo ahalmen publikoen edo arduradunaren interes legítimoen arabera jasotako datuen kasuan. Hau **ez da aplikatuko baldin eta**:

- Nagusitzen diren ezinbesteko **arrazoi legítimoak** badaude.
- **Erreklamazioak** egiteko mantentzen bada.



EZABATZEKO ESKUBIDEA (“Ahaztua izateko eskubidea”)

Interesdunak eskubidea izango du datuen ezabatzea lortzeko honako zirkunstantzia hauetakoren bat ematen denean:

- Datu pertsonalak **jada beharrezkoak ez izatea** jatorrizko edo ondorengo xedeei dagokienez.
- Interesdunak **tratamendurako adostasuna erretiratzen duenean** eta tratamenduak beste oinarri juridikorik ez duenean.
- Interesduna interes legítimoetan oinarrituriko edo xedetzat marketina duen **tratamenduari aurka egiten dionean**.
- ...



EZBATZEKO ESKUBIDEA (“Ahaztua izateko eskubidea”)

-
- Datu pertsonalak **bidegabe edo legez kontra tratatu direnean**
- Datu pertsonalak arduradunaren **legezko obligazio bat betetzeko** ezabatu behar direnean

Datuak ezabatu behar direnean baina hauek jada **publiko egin badira**, arduradunak **zentzuzko neurriak** hartuko ditu datu pertsonalak tratatzen ari diren arduradunei jakinarazteko **datu pertsonal horietarako edozein esteka ezabatu egin behar dela**, baita horien edozein kopia edo erreplika ere.



TRATAMENDUA MUGATZEKO ESKUBIDEA

Interesdunak eskubidea izango du datuen tratamendua mugatzeko honako baldintza hauetakoren bat betetzen denean:

- Interesdunak datu pertsonalen **zehaztasuna inpugnatu edo aurkaratu duenean**, arduradunak datuen zehaztasuna egiaztatu ahal izateko behar duen epean.
- Tratamendua **bidegabe edo legez kontrakoa izatea** eta interesdunak, ez ezabatzea, baizik eta erabileraren mugatzea eskatzen duenean.
- ...



TRATAMENDUA MUGATZEKO ESKUBIDEA

- ...
- Jada datuak behar ez direnean, baina interesdunak behar dituenen **erreklamazioak** formulatzeko, egikaritzeko edo **defenditzeko**.
- Interesduna **tratamenduaren aurka jarri denean**, arduradunaren arrazoi **legitimoak** interesdunaren arrazoiak gainetik ote dauden egiaztatzen den bitartean.

Mugatzea bertan behera uzten bada, interesdunari **horren berri eman** behar zaio aurretik.



Interesdunaren eskubidea da datuak **formatu egituratuan**, erabilera arrunteko eta irakurketa mekanikoko formatuan, jasotzeko eta **beste arduradun bati eskualdatzeko**:

- Tratamenduak interesdunen **adostasunean oinarriturik** egon behar duenean (adostasuna xede jakinetarako, datu berezietarako edo kontratu bidez)
- Tratamendua **bitarteko automatizatu**en bidez egin behar denean.



Teknikoki posible bada, datuak **zuzenean** hurrengo arduradunari helaraziko zaizkio.

Eramangarritasun-eskubidea **ez dago aplikatzerik interes publikoagatik** edo ahalmen publikoak erabiliz egindako **tratamenduei**.



BANAKO ERABAKI AUTOMATIZATUAK

Eskubidea **automatizatua** bakarrik den erabakiaren helburuez izateko (profilak egitea barne), salbu:


- Kontratu bat betetzeko behar denean.
- Legeak baimenduta dagoenean.
- Interesdunaren adostasun esplizituarekin.



BANAKO ERABAKI AUTOMATIZATUAK

Dena den, arduradunak interesdunari bermatu behar dio **giza esku-hartzea lortzeko eskubidea** arduradunaren aldetik, baita **bere ikuspuntua adierazteko eta erabakia aurkaratu edo inpugnatzeko ere**.

Erabaki automatizatuak **ez dira aplikatuko datu berezien kategorien gainean, berariazko adostasun edo interes publikoa dagoenean izan ezik**.



ALDERDI NABARMENDUAK: INTERESDUNAREN ESKUBIDEAK

- Eskubideak baliatzeko arduradunak **informazio zehatza, gardena, ulergarria emango du hizkera argi eta errazean.**
- **Gehienez hilabeteko epean** erantzun behar da eskabidea jasotzen denetik (3 hilabeteko epean, konplexua bada).
- **Arduradunak ez badio eskaerari bide ematen, hilabeteko epean arrazoien berri eman behar du,** baita kontroleko agintaritzaren aurrean erreklamatzeko eta/edo epaitegian akzioa zertzeko aukeraren berri ere.
- Eskaturiko informazioaren jakinarazpena **doakoa** da.



ALDERDI NABARMENDUAK: INTERESDUNAREN ESKUBIDEAK


Eskubide hauek guztiak **edozein unetan** erabil ditzakete herritarrek, datuen tratamenduak iraun bitartean edo amaitu ondoren; salbu legezko oinarriren bat dagoenean herritarraren interes partikularren gaineratik, adibidez, Estatuaren segurtasun-egoerak; defentsa; segurtasun publikoa; arau-hauste penalen prebentzio, ikerketa, detekzio edo epaiketa eta abar



ONDORIOAK


Araudi berria datuak babesteko arloan

- Legezko esparru berria 2018ko maiatzean sartu zen indarrean.
- Nahitaez bete beharrekoa.
- Europako Batasuneko eremu osoan aplikatzekoa, eta EBko herritarren datuekin lan egiten duten enpresetan ere bai.




Erantzukizun Proaktiboa

- Ez da aski neurri estatikoak ezartzea.
- Ezartzen diren segurtasun-neurriak kudeatu egin behar dira eta sortzen diren egoeretara egokitu.




Arriskueta bideratutako ikuspegia

- Hartzen diren segurtasun-neurriek bat etorri behar dute detektaturiko arrisku-mailarekin.
- Koherenteak izan behar dute babesturiko datuen balioarekin eta arriskua gauzatzeak izan dezakeen inpaktuarekin: Inpaktuaren Azterketa egitea.




Segurtasun-eten edo arrakalak jakinaraztea

- Prozedura bat eduki behar da datu pertsonaletan segurtasun-eten edo arrakalak jakinarazteko AGPDri.




Eskubide berriak

- Herritarren eskubide berriak agertu dira, AZETA (ARCO) eskubideez gain, adibidez, Ahaztua izateko eskubidea eta Eramangarritasun-eskubidea.




Adostasun esplizitua

- Datuen tratamendurako adostasunak, interesdunen aldetik, argia eta esplizitua izan behar du.
- Ez da onartzen adostasuna omisioz edo isiltasunez.
- Ez da onartzen zeharka lorturiko adostasuna, beste gai batzuetan estalita edo argiak ez diren testuen bidez lortua: Gardentasuna.



Zehapen handiagoak

- Nabarmen gehitu da zehapenen zenbatekoa LOPDrekiko, eta 20.000.000 €raino irits daiteke edo aurreko finantza-ekitaldiko urteko negozio-kopuru osoaren % 4koa.



GALDERARIK?





Your Cybersecurity Company